

“AUSKALO”?

Sarritan erabili dot buruan berba au nondik etorri daitekean.

Leengo egunean, gizonezko batek itaun au egin eustan: “Zu, zer da *auskalo*?” “Ori neuk be nai neuke jakin”-erantzun neutsan.

Itxuraz, gipuzkoarrak darabilen berbea da.

Azkue'ren iztegiak ez dakar; ez da agertzen Aita Akesolo'k ezarri eutsan “Suplemento al Diccionario precedente” (de Azkue) dalakoan bere.

“Diccionario Retana de Autoridades del Euskera” aztertu eta auxe idoro dot:

“*Auskalo*: ¡Quién sabe!” Eta Nemesio Etxaniz'ek eta Iñurritza'k darabilela diño.

Izan be, “¡Quién sabe!” adierazoten dau. Baiña, ez ete-da izango erderazko “¡A buscarlo!” itza?, “¡Vaya V. a buscarlo!”? Ni baietzean nago.

Zuk, irakurle, onetzaz beste zerbait ba'dakizu, agertu, mesedez, ZER aldizkari onetan.

MEMAIA

BARRUKOZ

Mintzo apal, ixillez,
bizitzara gaitezen
biotz garbi, maitallez,
norkeri gangar barik
ikasiz begiratzen
adikor ta, argirik,
benetako itzalez.

Aolku jakingarriak,
Ai!, zenbat onelako
amumatxoren bidez,
baitabe, amarenez,
suaren inguru, gozo,
kutunkiro ikasiak.

Atez barru, semeok,
etxeko laratzpean
barrutik bizi, danok,
gogo barruz, biotzez,
anaitasun betean
bizitzadun ametsez,
etxekide guztiok!

Neguko orbelduraz
gorroto aize baltza
dabil zurrunbilloan;
aize gogor ta latza
gizartearen barruan
zemaizko igiduraz.

Ate barruz, semeok,
laratzondo ta, gogo
barruz, bizi maiteok
apalkiro ta zintzo,
itza geiegi jazo
ta, nabarmendu barik,
mintzo ixiltzu, barez,
bizia laztandurik
zentzuz, gizatasunez.

MUNIATEGI'tar SABIN

EGINKARIAK

¿Zein ete da mundu onetan
eginkari andiena?
Orain zartzarora elduta,
ikusten dot argiaz.
Ezta erriak menperatzen
giz-izen emotiaz.
Ez, jadetsi mundu onetan
lekurik garaiena.
Ez, bioztu donokian,
Jaun onduan jartia...
(Anaideunen bien aman
eskai-zoroskitsua!)

Jauna, auxe da nire naia
au, neure beresia:
Jaun altsuen, sari barik
otseña izatia.
¿Nun, mundu zabal onetan
sari bako jopua?
Makur-makurrik eginda,
sartuta gurutz-pian.
Zu bakarrik begiratzen
juango naz zeure atzian.
Gurutz aztuna da leuna
Zu ba zagoz aurrian.

UTARSUS